

Harremanak eratuz


(Kurtso amaiera)

Adiskidetasuna ospatuko dugu, hau da, gure artean, gure seme-alabekin eta Jesusekin eratzen dihardugun hartu-emanan. Haurren adinak baldintzatuko du beraien partaidetza baina, dena dela, denok, haur eta nagusi, bakoitzak bere ahalmenen arabera saioan parte har dezagula da gure asmoa.

Gure artean, eta Jesusekin, hartu-emanean, loturik gaudela sentitzean datza. Horretarako harilarekin jolastuko dugu. Prest izango dugu, era berean, Jesus izena "moztuta" eta "trokelatuta" (zuloetatik artilea pasatzeko) duen kartulina.

Zirkuluan jarriko gara; hariletik tiratu, geure izena esan eta artilea Jesuengandik pasatuko dugu. Gura dugun beste bider egingo dugu, denok, geure artean eta Jesusekin, estu loturik izan arte.

Globoetan geure izena ipiniko dugu eta harileko artilearen zati batekin lotuko ditugu.



Helduei orrialdea banatuko diegu ospakizuneko testuekin.

Has gaitezen...

Jainkoaren aurrean gaudela aitortuz, aitaren egingo dugu.

Gure artean eta Jesusekin lotuta gaude... Beraz, hori adierazteko, harila botako diogu elkarri.

Dinamika hau amaiturik, eragileak sarrera egingo dio Ebanjelioaren irakurgaiari eta partaidetako batek irakurri egingo du. Joanen liburutik (15, 12-18) hartutako irakurgaia da.

Jesus ikasleekin zegoen azken afaria ospatzen. Afalostean, beraiekin solasean hasi zen. Kopetilun zegoen; ikasgai garrantzitsua eman nahi ziela zirudien. Orduan, hauxe esan zien: «Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar nik



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis



maite izan zaituztedan bezala. Ez die inork maitasun handiagorik adiskideei, bere burua haien alde ematen duenak baino».

«Gauzak derrigorrez, diruz edo beldurrez eginez gero, orduan morroia zara. Baina zuek niretzat ez zarete morroi; nire adiskide zarete. Eta nik egiten dudana egiten baduzue, nire jokaera baduzue, adiskidetasunagatik izan dadila. Neuk aukeratu zintuztedan. Neuk irakatsi nizuen nire Aita Jainkoarengandik ikasitakoa. Eta eginkizun bat eman dizuet: edonon frutitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela».

Joan 15, 12-18 pasartetik moldatuta
(‘rezandovoy.org’ delakotik hartuta)

Partaideek hausnar dezatela une batez idazkiak zer esaten dien eta zer adierazten dien irudiak, “eho” dugun kartulinak.

Musika jarriko dugu barneratzea eragiteko. Ondorengo [estekan](#) duzue proposamen bat:

Begiak itxiko ditugu...

Geure lagun-minengan pentsatuko dugu... nolakoak diren, zer duten gustuko egitea...

Elkarrekin egiten ditugun gauzak ere gogoratuko ditugu: paseatu, jan... zenbat maite dugun elkar... zertan gauzatzen den elkarrenganako maitasun hori... nola zaintzen dugun elkar... nola besarkatzen dugun elkar... gainerako adiskideak poztzen dituzten gauzak egiten ditugula...

Pertsona guztien adiskide izanik bizitzeko proposatzen digu Jesusek...

Adiskide on, lagun-min... izaten laguntzeko eskatuko diogu Jesusi...

Eragileak berriz irakurriko du Joanen txatla.

Isilunearen ostean, batera jarriko ditugu gure sentimenduak, gure hausnarketak...

Eta hitz egiteaz batera... globoa hartu, puztu eta gure eta Jesusen izena jarriko diogu... eta artile zati batekin pazko-zuzian edo erraz ipini eta kentzeko moduko lekuren batean lotuko dugu (ikus argazkia).

Ondoren, elkarrekin, gidoian agertzen den otoitza egingo dugu. Izenak esan ahala, gure globoa hartu eta etxera eramango dugu hemen bizi eta ospatu duguna gogoan izateko.

Amaitzeko, *Jesus, amigo nuestro* –webean aurkituko dugu, adiskidetasunari buruzko ospakizunean- abestuko dugu (rezandovoy.org umeentzat)

<https://rezandovoy.org/reproductor/especial/inf-amistad>



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis



Jesús, amigo nuestro

Para ser buenos amigos,
Jesús ya nos ha enseñado:
amamos unos a otros
como yo os he amado.
Cuando pienso en mis amigos
de Jesús me acuerdo yo,
me acompaña en el camino
y me alegra el corazón.
Es muy fácil ser su amigo
solo quiere lo mejor,
juega y ríe con mis juegos

y le gusta esta canción.
Amigo cuando reímos
amigo cuando cantamos
amigo cuando dormimos
y amigo cuando jugamos.
Y por eso tan felices,
y por eso tan contentos,
compartimos con el mundo
que es Jesús amigo nuestro. (bis)

Honako hau kurtsoko azken saioa bada, askaria edo irteera egin daiteke.



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis

